



Nafarroa Bai

*Iruña, 2011-02-02*

Pello agurgarria,

Urtarrilaren 28an, Aralarrek, EAJ-PNVk eta independenteek NAFARROA BAI koalizioa 2011-2015 epealdirako udal eta foru hauteskunderi begira berriz eratzeko agiria izenpetu genuen; agiri hau ez zuen Eusko Alkartasunaren ordezkartzak izenpetu, bere Aberri Batzarrak erabakia hartu arte itxaron behar zuelako.

Ezin da bestela izan, eta errespetatu egingo zen batzar horrek hartutako erabakia; baina, aipatu agiria izenpetzearen inguruko berariazko erabaki zehatzik hartu ez dela kontuan hartuta- baina adierazi egin direlarik Nafarroan EAK Batasunarekin izenpetutako akordio estrategikoak mantentzeko borondatea eta Batasuna Nafarroa Bai koalizioan sartzeko berariazko nahia-hauteskundeak prestatzeko eta egitasmoak eta zerrendak osatzen hasteko lanari berehala hasiera emateko erabakiaren berri ematen diogu.

Eusko Alkartasunaren barruan, denboraz eta formaz agiri hori izenpetzeko erabakia hartzen baldin bada, koalizio barruko presentzia gauzatuko da alderdi guztiek onartutako Antolakuntza, Politika eta Egitasmo oinarrietan ezarritako terminoen arabera.

Eusko Alkartasunak bestelako alderdi batekin hitzartutako akordioetan sartzeko ustezko saiakeraren inguruan eginiko interpretazioei dagokienez, azaldu behar dugu hau ez dela inoiz bilatu eta koalizioa eratzeko testuan bertan ondo egiaztatuta geratzen da errekerimendua eskusiboki dela Nafarroaren lurralderako, eta koalizioari eta etorkizuneko boto-emalderi zor zaien errespetua gorderik. Azken finean, legegintzaldi osorako legebiltzar eta udal taldeekiko konpromisoarekin.

Amaitzeko, adierazi behar dugu ez dugula egoki ikusten, izandako ezbaiak EAK alderdikideei Batasunarekiko izenpetutako akordioak Nafarroa Bai koalizioaren aldetik Eusko Alkartasunaren subiranotasuna auzitan jarri delako balizko eta gezurrezko baieztapenaren babespean aurkezteko erabili izana.